



**2013KO AZAROAREN 22KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko azaroaren hogeita bian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2013ko azaroaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 62 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA SEI ZENTIMO (60.933,06 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- INGURUGIRO ARLOKO DIRULAGUNTZA.-

Basherri Egunaren inguruan Ingurumen eta Lehen Sektorea Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartzen du: postuak jartzen eta egun horretako antolaketan parte hartu, hala nola pintxoetarako eta zozketatu ziren bi saskietarako emandako produktuengatik, guztira LAU MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAIKA EURO ETA HAMAR ZENTIMO (4.591,10 €) ematea, bere espedientean dagoen zerrendan azaltzen den banaketaren arabera.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamaika direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

